

GIZARTE EKIMENA- NEGOZIAZIO MAHAIAREN LABURPENA

Atzo, maiatzak 11, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen beste mahai paritario bat egin zen, hitzarmena sinatu ondoren konpondu gabe geratu ziren kontuak negoziatzeko.

Hitzarmena apirilaren 14an argitaratu zen EHAAn. Kristau Eskolak eta AICEk atzo jakinarazi ziguten lan gatazka prozesu bat hasi dutela tutoretza-osagarria arautzen duen 65. artikulua aurkaratzeko. Patronalek ez dute sinatutakoa bete nahi, eta ez dute haur hezkuntzako lehen zikloan eta Lanbide Heziketan tutoretza ordaindu nahi. STEILASEk negoziatutakoa eta hitzartutakoa defendatuko du azken ondorioetaraino.

Ondoren, alderdi bakoitzak 2021erako soldata-proposamena aurkeztu zuen. STEILASEk, sindikatu gehienekin batera, kategoria guztietarako % 2ko igoera aldarrikatzen dugu, 2009 eta 2020 artean galdutako erosteko ahalmenaren zati bat berreskuratzen jarraitzeko. Kristau Eskola eta AICE, 2021erako kontzertu modulua % 2 igo den arren, ez daude soldatak igotzeko prest eta aurten soldatak izoztea proposatu dute.

Lanbide Heziketari dagokionez, hitzarmenaren 4. eranskinean, patronalek bi kontu negoziatzeko konpromisoa hartu zuten: 2020/21 ikasturterako Lantokiko Prestakuntzako 6 orduen banaketa koordinatzailearen eta tutorearen artean eta desdobleen aplikazioa. Ikasturtea amaitzen ari da eta Kristau Eskolak eta AICEk ez dute sinatutakoa bete nahi. Atzo esan zuten ez daudela ez bata ez bestea negoziatzeko prest. STEILASEk tresna guztiak erabiliko ditu alderdi horiek hitzarmenean arautzeko, diru publikoarekin finantzatuta daudela aintzat hartuz.

Bestalde, patronalek nahiago dute heziketa-zikloetako bigarren mailako eskola-orduen banaketa irregularra hitzarmenean ez arautzea, baina negoziatzeko prest daude, eta 26-29 eskola-orduko tartea proposatzen dute, argi utzita ez liratekeela konpentsatuko dagozkien ordu osagarri guztiak. STEILASEtik ezin dugu proposamen hori onartu, eta uste dugu posible dela zentzuzko gehieneko ordu kopurua eta konpentsazioa arautzea, egun ikastetxe batzuetan egiten den bezala.

INICIATIVA SOCIAL- RESUMEN DE LA MESA DE NEGOCIACION

Ayer, 11 de mayo, tuvo lugar una nueva mesa paritaria de Centros de Iniciativa Social con el objetivo de negociar los aspectos que quedaron pendientes tras la firma del convenio.

El convenio fue publicado en el BOPV el 14 de abril. Las Patronales Kristau Eskola y AICE nos comunicaron ayer que han iniciado un proceso de conflicto colectivo para impugnar el artículo 65 que regula el complemento de tutoría. Las Patronales no quieren cumplir lo que han firmado y pretenden no pagar la tutoría en el primer ciclo de infantil y en la Formación Profesional. STEILAS defenderá lo negociado y pactado hasta las últimas consecuencias.

A continuación cada parte presentó su propuesta salarial para el 2021. STEILAS junto con la mayoría de los sindicatos reivindicamos una subida del 2% para todas las categorías con el objetivo de seguir recuperando parte del poder adquisitivo perdido entre 2009 y 2020. Kristau Eskola y AICE, a pesar de que el módulo de concierto para 2021 ha subido un 2%, no están dispuestas a subir los salarios y proponen para este año la congelación salarial.

En cuanto a la Formación Profesional, en el anexo 4 del convenio las Patronales adquirieron el compromiso de negociar para el curso 2020/21 los términos de la distribución de las 6 horas de FCT entre coordinador/a y tutor/a y para la aplicación de los desdobles. Está terminando el curso y Kristau Eskola y AICE no quieren cumplir con lo firmado. Ayer aseguraron que no están dispuestos a negociar ninguno de los dos temas. STEILAS usará todas las herramientas para se regulen en convenio estos aspectos, que además están financiados con dinero público.

Por otro lado, las Patronales prefieren no regular en convenio la distribución irregular de la jornada lectiva en los segundos cursos de ciclos formativos, pero están dispuestos a negociarlo y proponen una horquilla de 26-29 horas lectivas, dejando claro que no se compensarían todas las horas complementarias correspondientes. Desde STEILAS vemos inaceptable esta propuesta y creemos que es posible regular un máximo de horas razonable y su compensación, tal y como ya se hace en algunos centros.

www.steilas.eus